

KIMU programa

Ikusgarri, festibal eta ikastaroen zerrenda
Lore Goyetche

I. IKUSGARRIAK

1) « Scène nationale du Sud Aquitain » **Baiona / Angelu**

H2ommes, Adone konpainia. Antzerkia eta musika zuzenean, 4 urte <

Une chenille dans le cœur, Troupuscule Théâtre. 7 urte <

*Rudo***, Manolo Alcàntara. Zirko eta txontxongilo. 7urte <

*Hotel Paradiso ****, Familie FLÖZ, Alemania. Maska, mimoa, dantza, akrobazia eta "clown" erabilpena. 8 urte <

*Silence ****, Night Shop Théâtre, Belgika. Txontxongilo antzerkia, 10 urte <

2) « Biarritz kultura » **Biarritze**

*Pop up ***, Teatro delle Briciole konpainia, Italia. Antzerkia: irudia eta liburuaren erabilpena. 3 urte <

Pull over, Embellie Musculaire konpainia, Frantzia. Dantza.3 urte <

L'après-midi d'un Foehn, Non Nova / Phia Menard konpainia, Frantzia. Dantza. 4urte <

*Mottes ***, Le poisson soluble konpainia, Frantzia. Buztina eta antzerkia. 5 urte <

Tiondeposicom, Marc Lacourt, Frantzia. Dantza. 6 urte <

*Livère ****, Entre les Gouttes konpainia, Akitania Berria. 9 urte <

3) « Hego Lapurdiko Hirigunea », **Hendaia**

Iz, Kiribil konpainia, Akitania Berria. Maska, musika eta egurraren erabilpena. 3 urte <

4) **Oloron Sainte- Marie**

Uccellini, Skappa konpainia/ Frantzia. Antzerkia eta tindua. 9 hilabete <

II. FESTIBALAK

1) « Festival Noël au théâtre » **Bruxela (Belgika)** 2016/12/26tik 2016/12/30rat
Belgikar konpainiak

- Antzerkiak

*Cache-cache***, Théâtre de la Guimbarde, 2/5 urte

Histoire d'une longue journée, Agora Theater, 3 urte <

Slapstic, Skat Théâtre, 3/9 urte

Bizar, Théâtre des 4 Mains et De Kolonie MT, 4/8 urte

Jean Berlificotte, Inti Théâtre Inti, 6 urte <

Je suis une danseuse étoile, Infusion asbl, 6 urte <

Le pain des invités, Faux comme il faut, 6 urte <

La princesse au petit pois, Cie Dérivation, 6/12 urte
Alex au Pays des poubelles, XL Production, 7 urte <
Danielle, Compagnie de la Casquette, 7 urte <
Totec, Cie du Chien qui tousse, 7 urte <
Piletta remix, Collectif Wow ! 8 urte <
Josette, Cie Arts & Couleurs, 8 urte <
*Comme la pluie, dessine comme si tu dansais ****, Foule théâtre, 8 urte <
*Des illusions ***, Cie3637, 12 urte <
La théorie du Y, La Compagnie du Y, 13 urte <
Suzy & Franck, Inti Théâtre Inti, 14 urte <

- Irakurketak :

*Respire****, Daniela Ginevro, 8 urte <
Deux valises pour le Canada, Cie Les Pieds dans le Vent, 9 urte <
*Y'a pas de lézard***, Cie Sequenza, 10/14 urte

2) « Régions en scène » **Périgueux / Sarlat (Frantzia)**: 2017/01/04tik 2017/01/06rat
Akitania Berria eta « Okzitania Pyrénées-Méditerranée » eskualdeko konpainiak

La petite poule qui voulait voir la mer, Cie Rhapsodies Nomades. Txontxongilo antzerkia. 4 urte <
*Histoire de Julie qui avait une ombre de garçon ****, Comme une Compagnie. Multimedia antzerkia 6 urte <
*La petite sirène***, Groupe Anamorphose. Ipuin musikal ilustratua. 6 urte <
Marguerite, Cie Avis de Tempête. Zirko koregrafikoa. 7 urte <
Défilé de Haute Culture, Helmut Von Karglass. Zirko umoristikoa. 8 urte <
Etre le loup, Cie Lazzi Zanni, 9 urte <
La Meute, Les associés Crew. Dantza. 10 urte <
Attifa de Yambolé, La Soi-Disante Cie. Bi hizkuntzetan : frantsesez + keinu. 12 urte <
ADN, Cie L'An 01, 12 urte <
Mr Jules, l'épopée stellaire, Les Philosophes Barbares. Objektu antzerkia. Publiko zabala

3) « Festival mondial des théâtres de marionnettes » **Charleville-Mézières (Frantzia)** :
2017/09/18tik 2017/09/22rat Konpainia internazionalak

La naissance, Flying Group Theater, Taiwan. Txontxongilo, itzal eta musika antzerkia 3 urte <
La bataille d'Ichinotani, Chiryu karakuri Ningyo company, Japonia. Karakuri antzerkia. Publiko zabala.
*Giraffe***, Hop Signor Puppet Theatre, Grezia. Txontxongilo mahain gainean. 6 urte <
Une poignée de gens, Vélo Théâtre, Frantzia. Objektu antzerkia, 10 urte <
*Ricdin Ricdon ****, Theater Meschugge, Alemania. Gorputz / txontxongilo. 8 urte <
Et bien dansez maintenant, Theater Meschugge, Alemania. Gorputz / txontxongilo. 8 urte <
Mémoires d'un sablier, La tortue noire & Luna Morena, Kanada/Mexiko. Bideo/ objektu/txontxongilo. Nerabe eta heldu.
*Chiflon, le silence du charbon ***, Silencio Blanco, Txile. Txontxongilo. 10 urte <
*La brodeuse****, Babit, Israel. Objektu antzerkia. Nerabe eta heldu.

Un oeil, une Oreille, L'aurore / Kok Thlok, Frantzia / Kanbodge. Itzal eta Sbek Thom antzerkia. 4 urte <

*Heer ke waris ***, Ishara Puppet Theatre Trust, India. Txontxongilo/maska/itzala eta proiektzio antzerkia. 8 urte <

Bébé, Théâtre du mirage, Belgika. Tangram, itzal eta argi antzerkia. 3 urte <

Et puis s'envolent, Compagnie d'Urgence 2, Frantzia. Objektu antzerkia eta musika. 4 urte <

*Millefeuilles ***, cie Areski, Frantzia. Pop-up, kirigami eta itzal antzerkia. 6 urte <

L'enfant sucre, cie Mou-ka, Frantzia. Txontxongilo antzerkia. 6 urte <

Confession d'une femme hachée, cie Nanoua, Frantzia. Objektu antzerkia. 8 urte <

*L'évadée ****, Teatro Golondrino, Frantzia. Hari Txontxongiloak. 3 urte <

➤ OROTARA : **60 ikusgarri**

III. IKASTAROAK :

- 1) « L'apport des Arts plastiques dans la relation thérapeutique » Syndicat National des Psychomotriciens / Lydia FEODOROFF / Ivry-sur-Seine (94) Frantzia

- *Modelage et conscience corporelle :*

2017ko martxoaren 20etik 23rat : moldatze, forma emaita eta gorputzaren inguruko sesioa.

Gure gorputza, forma ezberdinak eta espazioaren kudeatzea deskubritu.

Buztin lurrarekin hunkimena, polaritatea (betea / hutsa, mugimendu/ pausa) eta oreka/ tentsio harremanak landu.

- *Couleur et émotions, dessin et liberté du geste :*

2017ko maiatzaren 15etik 18rat : kolore eta emozioak, marraztea eta jestu libertatearen inguruko sesioa.

Tindua, pastela eta zur-ikatzaren erabilera landu.

Kolore ezberdinen kalitateak, harremanak eta jokoak aztertu.

Psikologikoa bazterrera utziz, mugimendua edo musikaren bidez marrazki « dinamikoa » experimentatu sentsazioetan murgilduz.

- 2) « Horizon danse » Tarnose (40) Frantzia

2017ko ekainaren 5etik 17rat

Mugimenduak sortzen dituen sentsazio ezberdinen lantzea : oreka, kontaktua eta koordinazioa.

Haurrekin espazio eta talde kudeaketa lantzea.

Bakarka edo taldeko sorkuntzen eramaitea.

KIMU ikerlana

HARIAK



Lore GOYETCHE
2016/2017

Sustengatu nauteneri...

Planoa

Hasierako hitza.....1

I- Hiru piezen arteko haria.....2/4

- 1) « *Comme la pluie, dessine comme si tu dansais* » Foule Théâtre
- 2) « *Silence* » Night Shop Théâtre
- 3) « *Hotel Paradiso* » Familie FLÖZ
- 4) Haria

II- Eszenografia lantzeko hari zorbait.....4/6

- 1) Koloreak
 - Lehen mailako koloreak
 - Bigarren mailako koloreak
 - Kolore osagarriak
- 2) Formak
 - Nola mugimendua eman bizirik gabe den materiari?
- 3) Espazioa

III- Livèrè antzerkia : galdezketak eta ikerlanaren arteko hariak.....7/9

Lise Hervio taula zuzendariarekin eta Francisco Dussourd eszenografoarekin eginiko elgarrizketa

- 1) Nola taula gaineko espazioa kudeatzea erabaki ote duzue?
- 2) Livèrè piezan erabilitako materia eta objektu garrantzitsuenak zein izan dira ? zer kontraste sortu nahi izan ote duzue?
- 3) Pertsonaien estetikan kontraste horiekin jostatu nahi izan duzue ere, ezta ?
- 4) Pertsonai hauen arteko ezberdintasunak jokoaz aparte nola erakutsi nahi izan dituzue?

Azken hitza eta "Hariak" Joseba Sarrionandiaren testoa.....10

Argazki iturriak

Hastapeneko hitza

KIMU programak hasieratik erakarri nau ondoko hiru ardatzak elkartzen bait zituen:

- haurren mundua: ene pzikomotrizitalari laneko publiko zabala
- antzerkia: azken urte hauetan interesa haundia emaiten diodan pratika
- mugaz gaineko idekidura: beste kulturei eta aberastasunei kuriosa naizelako

2016-2017 urte honek, festibalak eta ikastaroak ene nahieri lotzeko harien sortzen erakatsi dit.

Hariak... haur eta antzerkiaren arteko hariak... haurraren garapenaren eta proposamen artistikoen arteko hari finak... batzuetan hauskorrak... beste batzuetan atentzioa hain den haundia nun moztu ezinak diren.

Haurraren obserbaketan bereziturik eta nere antzezle esperientziarekin KIMU programari esker hiru norabideetara so zegoen ikuslea izaiteko aukera experimentatu dut. Ikusgarriz-ikusgarri publikoari, taula gaineko jokoari eta nere barneko sentsazioeri konektatua egon naiz. Huna gogorat etorri zaizkidan galdera zorbait :

Zergatik ikusgarri batzuetan haurrak buru belarri, sentsazioz eta emozioz beterik ikusgarrietan iretsiak bezala dira ? beste batzuetan aldiz zergatik hasieratik publikoa eta taula gainean gertatzen denaren artean ez da haririk ?

Hilabeteak pasa arau, eta xuxtut gehien neri eta ondoan nuen haur publikoari gustatu zitzaizkigun piezak lekuko, arrunt ezezaguna zitzaidan mundu bati interesatu nahi izan dut: taula zuzendaritzan eta eszenografian egiten diren kolore, forma eta espazio kudeaketa ezberdinen hautueri.

Antzezlearen jokia alde batera utzirik, arte plastikoei hurbildu naiz. Ikastaroetan zuzenean experimentatzearekin, sentsazio desberdinen bidez nere gorputzaren mezuen eta eszenografiako kodigoen irakurtzen ikasi dut.

Ene galderei inhala zehatzen erantzuteko eta gustukoa nuena kondutan harturik, pixkanaka ikastaroek eta festibalek ibilbide hertsia bat hartu dute.

Antzerki mota ezberdinak proposatzen zituzten festibal zabaletarik txontxongiloa ildotzat duen festibalarekin, mundu osoko kulturetako kolore, usain, irudi eta musikaz betez KIMU abentura bukatu dut.

Ikerketa honetako gehien gustatu zaizkidan hiru obretatik abiatuz eta eszenografiako puntu batzu zehatzuz « Livère » piezaren taula zuzendaria eta eszenografoari eginiko galdezketaz oinarrituz, mediazio desberdinen hautuen sentsua azalduko dut.

Azpimarratu nahi dut ikerlan honetan ez naizela antzerkilarien jokoari interesatuko, osagai ezinbestekoa baldin bada ere baina inguruan diren gehigarriari.

I- Hiru piezen arteko haria

Unibertso desberdinetan ikusitako hiru antzerki horiek hasieratik puntu amankomun bat dutela senditu dut. Pieza hauetan publikoarekiko obserbaketa eta antzezleen joko irakurketaz kanpo gelditu naiz, ikusle gisa osoki eramana izan naizelako. Azken finean osotasun bat zelakoan nire atentzio osoa xurgatua bezala izan da eta publikoa gehienarena ere atentzio biziki sakona zelako denbora osoan.



1) « Comme la pluie, dessine comme si tu dansais » Foule Théâtre :

Publikoaren parean paper xuri haundi bat zabaldurik... marrazteko behar diren osagaiak mahain ttipi baten gainean metaturik... musika entzuteko K7-ak irakurtzen dituen posta zahar bat... xapel bat trebeska buru gainean duen 50 urteko gizon erabe bat xutik publikoari so.

Antzezlan osoan, pertsonai bakarra bere margo lanen eta publikoari zuzenduriko istorio batzuen kondan joan-jinka arituko da. Publiko zabalari idekiriko pieza honek, sinpletasun osoan eta hitz guttirekin bere irudimenean eramaiten gaitu.

Emozioz beteriko isiltasun momentu luzeak gertatzen dira nun atentzioa gorenean duten 7 urteko eta 85 urteko bi pertsona elkartzen diren.

Antzezlearen jokoaz gain erritmoaren mantentzeko kontraste zorbait ederki josiak izan dira.

- Ixiltasuna / mintzaira
- Mugimendua / geldiunea
- Kolore iluna / kolore argia
- Bere espazioa / publikoarekin partekatutako espazioa / publikoaren espazioa

Azken finean hautu guztiak pentsatuak eta sentsuz beteak baziren ere, zuzenezko arte honek ekartzen duen osagai garrantzitsuaz bete da. Hau da publikoa eta taularen artean gertatzen dena: ezezaguna eta momentuan sortzen den « magia » erabiltzea eta biziartzea lortu du.

Antzezlea ez zen kontrola moduan, ez zen arrunt lasaitasun moduan ere ez baina bien nahasketa xuxenean. Publikoak hori senditu du eta haurren atentzioa mantentzeko beharrezkoa den elikagai honi esker piezaren tarte osoan atentzioa atxikia izan da.

2) « Silence » Night Shop Théâtre :

Hitzik gabeko txontxongilo ikusgarria da. Ikusgarri denboran iduritzen zaigu deus ez dela pasatzen, erritmo luzatua eta gertakari guttikoa da. Publikoak maitemindua diren bi pertsonen egunerokotasuna zuzenean bizitzen du : errepikatzen diren atentzioeri eta emozioeri indarra emana zaie.



Espazioaren aldetik publikoa zinez ikusle erroan emana da: protagonisten biziaren obserbatzaile baina ez barne. Ez da trukaketa xuxenik publikoarekin baina finezia guzia hortan da gomiatuak bezala senditzen girelako.

Gela aski bete batean, jestu finak eta kolore desberdinak dituzten objektu anitzen hautua egin dute. Berriz ere kontraste kondu bat da eta hor gehien espazioaren kudeaketan :

- Tentsio diagonalak erabiltzearen hautua : biziki urrun tentsio guneak direlarik edo oso hurbil goxotasun uneen markatzeko.

Pertsonai bakotxa objektu bati atxikia da hari garden batez lotua balitz bezala: bat bere betaurrekoen manipulazioari eta bestea kaderaren posizionatzeari. Objektu hauekin manipulazio sinpleak, biziki zainduak eta beti berdinak dituzte : haien gorputzeko parte bat dirudite. Istorioa aintzinatu arau, ikusleak objektua ikustearekin perstonai osoaren bizia gogorat heldu zaio.

Objektuarekin harreman berezi bat sortua izan da eta azkenean honen biziarazten lortu dute.

3) « Teatro paradiso » Familie FLÖZ :



Erritmo biziki bizia, joan-jin anitz espazioan eta gertakariak trumilka nahasten diren pieza da. Hitzik gabe, dena gorputzaren mintzairaz adierazia zaigu. Maskak erabiltzen dituzte perstonai batetik bestera pasatzeko: gorputz kode biziki argien bidez haurrek segidan dakite pertsonaia bakotxa nor den, zer adin eta zer pertsonalitate duen.

Emozio extremoetatik pasatzen den pieza da: umoretsua baina betan mezu azkarrak pasaarazten dituen. Familia batean diru kontuak afektiboari nahasten direlarik sortzen diren gora beherak antzeztuak dira. Aktoreek, publikoaren erantzunak errezebitzen jakin dute : luzeak diren irri karkailak edo ixiltasun momentuek eskatzen duten uneen errespetatzen lortu dute.

Objektuak baino gehiago gorputz kodeak biziki azkarrak eta zainduak dira: beti berdinak hor ere ikuslea bilatzen den irudimenera askatasun osoz ekarrarazteko.

4) Haria:

Hiru pieza hauetan honako ezaugarriak agertzen dira:

- hitz gutti edo batere erabiltzea
- dinamismo azkarra edo geldikortasuna tartekatzea
- gorputzaren expresibitateetik pasatzea: marrazkia, dantza, txontxongilo...
- momentuan publikoarekin gertatzen den "magia" senditzea eta erabiltzea

Beste piezekin konparatzearekin, elementu horietariko bat eskas delarik, osotasuna galtzen dela ohartu naiz eta beraz atenzioa ez dela atxikia.

Aktoreak elgarrekin konektatuak direlarik sortzen diren momentu azkarrak bezala, pieza hauetan, publikoan ikusle gisa beste ikusleekin emozioz beteriko trukaketak senditu ahal izan ditut. Isiltasuna, mugimendua, hutsa edo betea erabiliz, publikoa gomitatuz eta behar den distantzia atxikiz haien unibertsoa bortxatu gabe sortzea lortu dute.

Nere gustuko, hiru pieza horietan, atentzioa mantentzeko eta mezuen pasarazi ahal izaitzeko, kontrasteetan lan haundia eraman dute. Eszenografiaren aldetik espazioan, objektuetan eta pertsonaieri "kolore" desberdinen sortzeko indar berezia emana izan dela nabari da. Giro desberdin horien senditzearekin, ene ikastaroak eszenografiaren inguruan egitea erabaki nuen.

II- Eszenografia lantzeko hari zonbait

Ondoko lerroetan, koloreak, formak eta espazioari buruzko xehetasun batzu azalduko ditut.

1) Koloreak:

Kultura desberdinen arabera koloreek erran-nahi desberdina dute. Halaber lehen mailako hiru kolore dira:

- Gorria
- Urdina
- Horia

Kolore horien nahastearekin beste milaka kolore desberdin sortzen dira. Eskoletan matematikak ikasten diren bezala, koloreen sortzearen prozesua erakatea edo haurreri experimentaraztea baitezpadakoa da. Gaurko egunean kolore ezberdin anitz xuxenki lortzen ahal direnez hauen nahastearekin sorturiko doinu, tonalitateak ez ditugu gehiago senditzen edo ikusteko denbora hartzen. Alta barne ezagutza aberatsago bat ekartzen dute. Ikusgarrien begiraterakoan honako gogoetak etorri zaizkit:

Urdin ilun batek zerri pentsaraziko dit? Gorri ilun batek zergatik gehiago beldurrarazten nau iranja edo horia baino? Ze irudimen gogorat heldu zait berde "doinu" desberdinak begiratzuz?

- Lehen mailako koloreak

Antzerkian jantziekin, objektuekin, argiekin eta beste hainbeste "gehigarri" delakoekin, beti xekatzen den osotasun horren lortzeko, dena kolore ezberdin erabiltzen dira. Baina nahi dugun ondorio honetarat heltzeko hasieratik abiatzea beharrezkoa da.

Urdina

Urdin ilunetik argiagoratz joanez dentsitate ezberdinak dira. Unibertso iluna, pizua, sakona eta ezezaguna lortzeko urdin iluna erabiliko dugu. Aldiz arintasuna eta lasaitasunaren inguruko eszenentzat urdin argiagorantz joanen gira. Urdinak posibilitate anitz ditu, oso zabala da: urdin berotik hotzera pasatzeko aukera anitz ditugu.

Adibidez: zeruko unibertsoa... ametsak... haur mundua ... itsaso ilunekoa...gau beltza...

Orokorrean barneruntz itzulia den kolorea dela erran dezakegu.

Gorria

Urdina baino beroagoa da. Jauzi egiten duen eta ateratzen den kolorea da: dinamikoa da. Kolore hunek ere aberastasun handia du.

Adibidez: odola... mina...lanjerra...tomatea... egunsentia...

Gorria kanporuntz doan kolorea da.

Horia

Gorria eta urdinari konparatuz, horiak dibertsitate ttipiagoa du. Ez denez hainbeste eraldatzen ahal, polaritate guttiago du.

Adibidez : hori hotza (zitroina) edo hori beroagoa (arroltze gorringoa).

Horia argiaren eta berotasunaren sentrazioa garraiatzen duen kolorea da.

Zabaltzen den kolorea da, barreatzen dena beraz gorria bezala kanporuntz doan kolorea da.

- Bigarren mailako koloreak

Lehen mailako koloreak nahasiz bigarren mailako koloreak lortzen ditugu. Jakinez lehen mailako koloreetan jada tonalitate desberdin anitz direla hor proposamen infinitoruntz goaz....

Horia + urdina= berdea

Horia+ gorria= iranja

Urdina+ gorria= ubela

Koloreek emozio edo sentrazio desberdinak pizten dituzte. Kolore bakoitzak bere kalitateak ditu eta ezinbestekoa da lortu nahi den giro baten sortzeko hauen kudeatzen jakitea.

Kexu girelarik zein kolore heldu zaigu bixtara? Eta beldur girelarik? Eta pausatua girelarik? Unibertso begetala lortzeko berdearen doinuekin jostatzeak ze sentrazio pizten ote du gure baitan? eta gure paisaia argi doinu ezberdinez janzten badugu, horia, gorria edo iranjarekin zer efetu ote du?

- Kolore osagarriak

Lehen mailako kolore bat beste lehen mailako bi koloreekin nahastearekin bata bestea osatzen duten kolore bikoteak sortzen dira. Bikote hauek kolore osagarriak deitzen dira.

Gorria / Berdea (urdina+horia)

Urdina / Iranja (gorria+horia)

Horia / Ubela (gorria+ urdina)

Base hortarik gero beste hainbeste kolore sortzen ahal dira baina gogoan atxiki behar da oreka hor hasten dela.

2) Formak

Koloreek haien hizkuntza duten bezala forma ezberdinek ere ikuslea leku desberdinetara bidaiarazten dute.

Oreka kontu bat da hor ere:



- Gogorra/ malgua
- Luzea/ laburra
- Horizontala/ bertikala
- Borobila / zorrotza
- Betea/ hutsa...

Borobiltasuna harrera edo esku zabal posizioari lotua da eta aldiz zuzentasunak distantzia emaiten du.

Goruntz idekiak diren formek idekidura bilatzen dute, airearekiko kontaktua ; aldiz lurreruntz zabaltzen diren formek finkatzea edo erroztatzea dute xede.

Objektu beteak, tinkoak edo ziloekin airea edo argia pasarazten dutenek konotazio desbedinak dituzte ere bai.

- *Nola mugimendua eman bizirik gabe den materiari?*

Materiari mugimendua ekartzeko, buztinaren lantzearekin adibidez lurra biziartzten, emozioz betetzen da. Barnean duguna materiari proiektatzen dugu : maska, txontxongilo edo edozein objektu biziartzteko azken huni barnean duguna eskaini behar zaio eta bien artean ikusgai den harreman berezi bat sortzen da.

Haurren jokoetan hori obserba daiteke: egunero edo manera desberdinean edo errepikakorran haien panpinak, egur puxkak edo baloiak biziartzten dituzte. Bizirik gabe den material bati haien barneko mundua eskaintzen diote. Mugimenduan ezarri, mintzatu, kantatu eta batzutan ahapetik kontsolatzen dituzten haien bikoteak dira. Haien barne emozioen arabera, edo lagun hoberenak edo etsaiak edo burasoak edo animaleak bilakaarazten dituzte... Azken finean istorioak kondatzearekin antzerki bat eskaintzen dute diskretuki so egoiten den publikoari.

3) Espazioa

Espazioaren lantzeak ere efetu anitz ekartzen dizkio taula gaineko giroari. Tentsioa sortu edo konplizitatea... detaileak erakutsi hurbil izanez edo urruntasunarekin lanjerra sortu lanbrotasuna ekarriz. Honako jokoak sor daitezke:

- Oreka / desoreka
- Urrun / hurbil
- Gainean / azpian



Formen jokoek, ikuspundu desberdinen arabera, istorio ainitzak kondatzen dizkigute.

III- « Livère » antzerkia


«Livère» objektu, itzal eta irakurketa zinematografiko bat eskaintzen duen pieza da. Bi pertsonai nagusi ditu:

- « Ni » mutiko ttipia: bere ikuspegitik eta etxetik kondatua den istorioa da. Amarekin bizi da, aita etxetik joana da eta gizon berri bat bere alabarekin batera dator haiekin instalatzea.
- « Livère » neska nerabea: “Ni” eta hunen amaren etxera dator bere aitarekin.

Sasoinak pasa arau familia ber-konposatu baten gora-beherak haur baten ikuspuntutik azalduak dira.



Lise Hervio taula zuzendariarekin eta Francisco Dussourd eszenagrafoarekin eginiko elgarrizketatik oinarrituz, huna nire ikerlanarekin egindako lotura zoinbait.




1) Taula gaineko espazioa nola kudeatzea erabaki duzue?

Hasieratik ingurunea ez da errealista beraz kode bat sortu dugu. Textu poetiko bat erabiliz irudi zinematografikoak sortu nahi izan ditugu.

Gogoan ginuen bi espazio bereizi behar ginituela eta oreka bat izaitzea ginuen helburu.

Barna: etxea, hasieratik lurrean den **karratu urdin** baten bidez adierazi dugu. « Kapla » delako egurrezko haurren jokoak, modelo haundian eta ttipian, etxearen lau izkinen zutabeak adierazten diru Istorio honetan ez dakigu Ni-k egindako amets bat edo ilusio bat edo zinez gertatu den istorio bat den. Ametsaren mundu hori sendiarazteko edo bederen ikuslea duda hortan uzteko kolore urdina hautatu dugu: zerua, haurraren irudimena ...

Tapizak Ni-ren orroitzapenak eta pentsaketa eremu hetsi eta babestuak mugatzen ditu.



Kanpoa : eremu urdinetik eta egur zutabeetatik kanpo den guztia da. Nun diren xuxen ez dakigu baina etxe barneko goxotasunaz kanpo direla segur gira : oihana, lanjerra...

Heldu eta haurraren espazioen desberdintzeko, kaplak modelo haundian edo ttipian ikusgai dira. Haurraren joko eta helduaren eguneroko elementu erabilgarri bezala izaitzearen kontrastearekin jostatu gira.



Forma haundian etxea, sukaldea, trein bidea, mahaina etab. mugatzeko erabili dugu eta modelo ttipian jostailu, mahaina, etxe ttipi etab.

2) Livère piezan erabilitako materia eta objektu garrantzitsuenak zein izan ote dira ? zer kontraste sortu nahi izan ote duzue?

Gehienetan, materiala berdina desbideratuz, mezu edo giro ainitzak sortzen saiatu gira.

Egurra

Baserri mundurat eramaiten gaituen materiala da. Sua pizteko erabiltzen da eta goxotasuna ekartzen du. Egurrak familia, su pazter inguruko topaketak eta oihana-ren inguruko irudiak gogorat ekarrarazten ditu.

Egurra errausturik elur gisa erabili dugu ere bai ; forma honetan ekartzen duen arintasuna eta xuritasuna agertarazteko.

Momentu lasaietan, pianoaren soinu ezia entzungai da ; musika tresna honen osagai nagusia egurra delarik.

Artilea

Eskoziar oihal gorri karratuduna erabili dugu estalgi gisa aizkolarien atorra orroitarazteko eta publikoa baserri munduan murgilarazteko. Baina ber oihalak, Livère-ek soinean duen atorraren bidez nerabearen hiritar mundua, "grunge" aldea argirat emaiten du.

Oihal puxka berdinarekin bi mundu sortu ditugu : baserria eta hiria.



Metalikoa

Kutxa metalikoa hor ez den aitaren esku-tresna ontzia da. Alde metalikoarekin alde hotza landu nahi izan dugu : aitaren eskasia eta horrek sortzen duen pena. Beste eszena batean gutun kutxa bilakatzen da, hots berri onen errezebitzailea konotazio beroago batekin.

Metalez eginiko gitarra elektrikoak hiritar mundua, lanjerra eta ingurune hotza isladatzen du. Metalezko treinararen eszenarekin berritasuna, mugimendua eta ezezaguna, hots Livère-en mundua agerian eman nahi izan dugu.

Laburbilduz, huna erabili dugun kontraste azkar bat:

Egurra / baserria / pianoaren soinu ezia : beroa

Metala / hiria/ gitarra elektrikoaren soinu bortitza : hotza

3) Pertsonaien estetikan kontraste horiekin jostatu nahi izan duzue ere, ezta ?

Sexu eta adin desberdinak dituzten bi pertsonaia dira. « Ni » mutikoa, gazteena, erabea eta hauskor agertzen da. « Livère » aldiz neska nerabea, gogorra eta beti ataka moduan da.



« **Ni** » : barneruntz itzulia eta zabaltasunean pentsatua da. Jantzi haundiegiak ditu, beldur delarik, hauen azpian gordetzen balitz bezala. Gutti jaten duen xori ttipi baten itxura du, hauskorra dela emaiten du. Gaizki ikusten duenez betaurrekoek bisaiari borobiltasun bat ekartzen die eta malestruka da. Hotza beti bere gainean du. Publikoaren baitan goxotasuna pizten du hunen babesteko gogoia emaiten duelako.

« **Livère** » : beti mugimenduan, kanporuntz itzulia eta luzetasunean pentsatua izan da. Ile gris eta luzeak eman dizkiogu “bitxikeria” eta besteak bezalakoak ez dela azpimarrarazteko. Nerabe garaian izanki identitate bila dabil eta bere estiloaren bidez afirmatzen saiatzen dela erakutsi nahi izan dugu : ile grisak, zapeta haundiak, beroki luzea... Deusek ez duela gelditzen iduri du : beti mugimenduan, bero-beroa, sutan bezala da. Bere karakterak publikoaren baitan beldurra eta mesfiantza sorrarazten ditu.

Bi pertsonaiak osagarriak dira ; koloreak eta formak bezala, batak-besteari eskas duena ekarriz unitate bat sortzen da. Kontrarioak dira baina harreman sendo bat sortzea lortzen dute elgar errespetatuz, azken finean oreka bat lortuz.



4) Pertsonai hauen arteko ezberdintasunak jokoaz aparte nola erakutsi nahi izan dituzue?



Espazioarekin tentsio diagonalak sortuz pertsonaien bi munduak adierazi nahi izan ditugu. “Ni” gehienetan etxe barnean da, ateratzeko beldurrez kokatua bezala da: ezin da ingurune hortarik atera. “Livère” usu espazio urdinetik kanpo da, mugimenduan eta “Ni” baino gorago da: posizio horrek haien harremanean den menpeketasuna salatzen du.

Azken hitza

Ikusgarriek ene formakuntza hautua errestu dute eta aldi berean ikasitakoari esker piezak beste begirada batekin ikusten ikasi dut.

Osotasuna... oreka... kontrasteak... huna ikusgarrien erritmoa eta atentzioa ahalbidetzeko beharrezkoak diren elementuak.

Euskal kulturak ohiturak, kondairak, musikak eta beste hainbeste gai mamitsu ditu. Herrian hurrei biziartzeko edo beste kulturei zabaltzeko antzerki forma ezberdin anitz sor daitezke. Guri kalitatezko proposamenen asmatzea eta haur publiko baten parean gehien bat adin honetan gorputzetik pasarazten diren mezuen zabaltzea.

Diren hariak azkar ditzagun...

Berriak sor ditzagun ...

Ezezaguneruntz joaitako beste harietaz lagun gaitezen...

Eta aintzina joaitako oztopatzen gaituztenak motz ditzagun...

Konklusio edo idekidura gisa huna Joseba Sarrionandia-ren "Hariak" izeneko textoa.

Hariak,

Gurasoen hariak, halabeharren hariak, norbere gorputzaren hariak, lagun minen hariak, behaztopatzeko modu luzeak, hariak.

Lotzen zaituzten hariak, maitasun luzeak bezalako hariak.

Titerearen modukoak, batzuetan atezuan, besteetan lasaieran edo korapilatzen.

Eta horrela bizi, hariekin, hariak egokitzen, hariei kasu egiten, harien kontra tiraka, haien gatibu.

Eman dezagun berrogei urtez horrela... eta bat batean ohartu ezetz, eguzkiaren edo ilargiaren errainuak bezalakoak direla hariak, eta ez zaituztela lotzen, azkenean, ez duzula haririk.

Argazki iturriak

“Bidea” Matiuzalem	Azala
Jacometti.....	6
Moore.....	6
Livère, Ignacio Urrutia.....	7/9